

## Feministek gatazkak konpontzen parte hartu behar dute

“Bake prozesuak oso luzeak izan daitezke; batzuetan bizitza oso bat eska dezakete. Gerra edo arma gatazka batetan, aurkaketa bultzatzen dutenek beren propaganda aparailu osoa eta komunikabideak erabili ohi dituzte erasoaren diskurtsoa indartzeko. Aldeen arteko erronka ez da soilik armen bidez gertatzen. Hitzen guda ere sortu ohi da, aurkariaren irudia antolatzeko eta gizon-emazteen agresibitatea piztu asmoz, abertzaletasun suharraz piztu ere.

“Bakearen alde agertzen diren taldeak propaganda horren aurka saiatu ohi dira, beste logika batetik abiaturik; taldekideak biktimak direnaren klixea hautsi eta topaketa sustatzen dute, bai eta bi aldeetako jendeen arteko elkartasun ekintzak ezagutzera ematen ere. Heroien erretorika apurtzeko, basakeriak eta sarraskiak erakusten dituzte, hau da, gudaren benetako aurpegia erakusten digute”. (Mujeres en Pie de Paz, Carmen Magallón)

Lehen Mundu Gerran bertan, 1914. urtean, sufragistak bakearen alde agertu ziren. Talde feminista guztiak horrela agertu ez baziren ere, haietako asko bai. Gure aurreko feminista haiek pentsatzen zuten emakumeek bozkatzearekin indarren oreka aldatuko zutela eta gerra historiatik baztertuko ere bai.

1914. urte horretan bertan, Emakumeen Botoaren aldeko Nazioarteko Aliantzak, 126 herrialdetako 12 milioi emakumeren izenean gerraren ordezkariak eta tartekaritza proposatu zituen.

Estatu Batuetan, 1915ean, gerran sartu aurretik, 3000 emakumek, emakumeen erakunde anitzen izenean, Bakearen Aldeko Emakumeen Alderdia sortu zuten.

1915. urtean, Hagan, **BAKEAREN ALDEKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO LEHEN BILTZARRA** egin zuten. 1.500 emakume bildu ziren, gerran ziren eta ez ziren 12 herrialdetako 150 erakunderen izenean, bakearen aldeko estrategia prestatzeko asmoz. Orain dela ia 100 urte zen hura eta Europa gerran zen. Biltzar hartara joateko mugak igarotzea gaitza zen oso, bizitza arriskuan jarri behar zen eta Frantziatik eta Errusiatik ezin izan ziren biltzarrera joan. Britainia Handian, 180 emakumeetatik soilik 25i eman zieten hara joateko baimena.

1919. urtean **BAKEAREN ALDEKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO BIGARREN BILTZARRA** egin zuten, Zurich-en. Gerra amaitua zen ordurako. Gerren eragin gaiztoak gehien sufritu zuten herrialdeetako emakumeen aurpegieta ikus zitezkeen eragin gaizto haiek. Australiatiko ordezkariak hiru astez bidaiatu zuten Biltzarrera biltzeko.

Bigarren Mundu Gerran, faszismoaren izugarrikeria nabarmenen beldurrak eraginik, emakumeen erakunde guztiak erresistentziara lotzera deitu zuten.

Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian ez dugu emakume bakezaleen erakundeen berri. Bigarren Errepublikan eta gero gerra zibilean ere, Emakume Libreen erakundeak, feminista anarkisten taldeak, baina baita emakume sozialista eta komunistek ere, errepublikaren alde armen bidez egitera deitu zuten; haietako asko guda oinera ere joan ziren, etxera igorri zituzten arte; erresistentzian parte hartu zuten, baina batez ere lan humanitarioetarako erakundeetan, gizartearen aldeko jantokietan, erietxeetan, sorospen gorri deiturikoan, etab.

Feminista bakezaleak Europan berriro agertu ziren NATOren aurkako kanpainian. Greenhan Common NATOren aire basea zen eta emakume horiek bertan kanpalekua egin zuten misile nuklearrak ezartzearen aurka aritzeko; kanpaleku horrek 1982tik 2000. urteraino iraun zuen. Gaur egun parkea da eta emakume haien oroitarria dago, haiek han izan ziren urteak oroitzera ekarriz, hau da, haien erresistentzia, haien desobediencia zibila eta haien bakearekiko konpromisoa.

Gero, gatazkan diren herrialdeetan, bi aldeetako emakumeen erakundeak hasi ziren sortzen. Beltzez jantziriko emakumeak, Bat Shalom, Israelen eta Palestinan.

Beltzez jantziriko emakumeak (Belgrado, 1991). Beren erakundeak Europan hedatzen lortu zuten (Italia, Espainiar Estatuak). Japonian ere bai. Lortu zuten NBEak emakumeen eta nesken bortxaketak gerra krimenez har zitzan. Haien helburuak gerraren basakeria salatzea eta gerrak emakumeengan eta herritar arruntengan duten eragina erakustea dira, bai eta gerra historiatik ateratzea ere.

Bat Shalom, Israelen (90. urteen hastapena). Israelgo emakumeek osatua, hala arabiar nola juduek; emakume horiek bi herrien beharretan, eskubideetan, balio eta historietan oinarrituriko bakea garatu nahi dute. Fisikoki elkartzeko zituzten arazoak gaitzeko, Bat Shalomeko emakumeak eta Jerusalemeko Emakumeen Etxeko palestinarrek beste erakundearen nazio mailako egunkarian artikuluak idatzi eta erantzuten komunikatzen ziren beren artean”.

Zipreko mugaren bi aldeetako emakumeen erakundeak. Lerroa zeharkatzen duten eskuak, 2001. Greko-zipriarrak eta turkiar-zipriarrak.

Emakumeen Nazio Koalizioa (Hegoafrika. 1994). Black Sash-ek sortua, klase ertaineko emakume zuriek eta Etxeko Langile Emakumeen Batzak osatua. Azken horiek emakume beltzak ziren, ziur aski zurien etxeetan lanean ari zirenak. Emakumeak berdintasunez negoziatzean izan zitezela eskatu zuten. Egin zuten borroka gaitzaren ostean ez zuten onartu nahi etxera bidal zitazten.

Ipar Irlandako Emakumeak. Hamarnaka urtez emakume katoliko eta protestanteak elkarrekin aritu ziren bi erkidegoen arteko lankidetzaren alde lanean. 1996. urtean negoziaketa mahian parte hartzeko baldintzen arteko bat zen hauteskundeetan hautaturiko ordezkariak behar zutela izan. Horregatik, bilera deitu eta bi erkidegoetako emakumeen 200dik gora erakundeak bildu ziren. Ipar irlandako Emakumeen Koalizioa sortu zuten eta bi eserleku lortu zituzten; halatan negoziaketa mahaian lekua lortu zuten.

Kolonbiako Emakumeen Bide Bakezalea (1996. urtea). Zortzi eskualdeetan koordinaturiko emakumeen 315 erakunde eta taldek osatua. “Nazio mailako politika feministako proposamena” dute egiten; Kolonbiako gatazka armatua

negoziatuz konpontzearen alde ari dira, bai eta gerrak emakumeen bizimoduan duen eragina ikustera ematen ere. Bakezaleak, militarismoaren aurkakoak eta indarkeriarik ezaren etikaren eraikitzaileak dira, oinarrizko printzipiotzat hartuz justizia, bakea, zuzentasuna, autonomia, askatasuna eta bestearen onartzea. 2000ko abuztuan erakunde horrek Beltzez jantziriko emakumeen sareko talde gisa izendatu zuen bere burua.

Seigarren Klana edo Somaliako Emakumeen Koalizioa. Gainerako bost klanetako emakumeak bildu ziren Somaliako Bakearen Aldeko Nazio Biltzarrean. Genero berdintasunaren alde bildu ziren. Nazio mailako Gutuna ezartzera iritsi ziren "emakumeen, haurren eta gutxiengoaren eskubideak" onartuak izan daitezten.

Liberiako Emakumeen Ekimena. Etengabeko erasoen dinamika apurtzeari ekin zioten, zeren aldeek, elkarrizketen fasean ere, ez baitzituzten akordioak gordetzen.

Sri Lankan, emakume tamil eta zingaldarrak elkarrekin aritu eta lehentasunak ezarri zituzten denen artean, betiere abiapuntu berdinarekin: gatazka armatuak emakumeen bizimoduan izaniko eragin ikaragarri gaiztoak.

Rawa. Afganistango emakumeen erakunde zaharrena da. 1977. urtetik hona ari da bakearen alde, demokraziaren alde, emakumeen eskubideen alde eta estatu laiko baten aldeko lanetan.

Bestelako taldeak badira ere; izan ere, oso kontuan hartzeko taldeak dira, oso esperientzia interesgarriak ditugu Argentinan 1977an sorturiko Maiatzako Plazako Ama eta Amonen borroka, Salvadorreko "Comadre"edo Amakideak, 1975ean, "Conavigua", Guatemalan, 1988an. Erakunde horien helburuak, besteren artean, inpunitatearen aurka borrokatzea zen, egia berreskuratzea eta desagerturikoen berri eman eta salatzea.

## MITOAREN GAINEAN

Denon ahotan da emakumeek gatazketan duten zeregina, bai eta patriarkatuak paperak banatzen duen modua. Emakumeok botere politiko eta ekonomikotik urrun izan gara beti. Ez gara armadan izan, ez eta, oro har, bestelako erakunde armatuetan ere. Gizonek zuten armen monopolioa. Halatan, besterik artean, haien aurka ez genituela erabiliko ziurtatzen zuten. Alor pribatuan, etxean gordeak izan gara orain arte.

Ama garen aldetik, izaera bakezalea omen dugu. Baina ama izan garenok ere ez dugu armadetan parte hartu eta zenbait ama gerraren alde mintzatu da. Emakume garen bezainbatean bakezaleak ez bagara ere, feminista garen bezainbatean, hala gara.

Feminismoaren hastapenetan bertan Bakearen alde sutsuki ziren emakumeak izan ditugu. Baita Rosa Luxemburgo, Clara Zetkin, Virginia Wolf. Denek zioten "utzi armak". Denek uste zuten emakumeok armak gorrotatzen genituela, gizonetakoek gure aurka erabiltzen dituztelako eta halatan, beti izan garelako kaltetuenak.

Hautatua bada nola bortxaz ezarria gertatu bada ere, **oso positibotzat** dugu:

Gatazkak sortzen parte hartu ez izana, ez eta gerra garaian militar gisa, nahiz eta batzuk aritu eta aritzen ere diren.

Indarkeria erabiltzen ez parte hartzeko ohitura historiko horren eskarmentu metatua ezinbestekoa zaigu gatazkak konpontzen parte hartzerakoan.

Ez dugu indarkeria baliatzen gure arazoak konpontzeko. Indarkeria guzti horren biktima eta bizirik iraunikoak gara.

Etsaia fisikoki ezabatzeko asmoa, indarkeriaz jokatzea, ez da zentzuzkoa mundu zibilizatuan, norbanakoen errespetuan oinarritua bada eta elkarbizitza plural eta demokratikoa sortu nahi badugu. Indarkeria erabiltzea batzuetan onartzen badugu, gizonak elkar hiltzen jarraituko dute, bai eta gu hiltzen ere.

Beti izanen da indarkeria onartzeko egoeraren bat, gustuko ez zaigunaren aurka.

Honela zioten Bolibiako "Mujeres Creando" taldeko feministek: "cuidado con el presente que construyes, tiene que parecerse al futuro que sueñas" Kasu sortzen ari zaren orainari; amesten duzun etorkizunaren antzekoa behar du izan eta". Bitartekoek eta helburuak antzekoak behar dute. Bitartekoek baitute helburua egiten.

Historian zehar emakumeok dugu bakearen aldeko erakundeetan parte hartu; guk ditugu indarkeriarik gabeko metodo eta estrategiak garatu eta bakea gorde beharreko ontasun gisa aldarrikatu.

Emakumeen erakunde horiek dute gerren benetako izaera salatu. Gerra ez baita bi armada elkarren aurka; batzuetan izan ere ez baita armadarik. Gerren helburua herritar arruntak dira. Eskubideak desagertzen dira. Gizonak emakumeentzat arriskutsuak izan ohi direlarik, zer ez zaizkie, bada, armaturik doazenean!

Hori dela eta, oso argigarri da, Txetxeniako gerraren aurka agertuz, "Ama Errusiarrak Gerraren Aurka" erakundeak zioen honako hau: "Gure semeak gurea ez den gerrara eramaten dituzue eta beste herri baten aurka, jende errugabearen aurka, gehiegikeria pila egin duen hiltzaileak dizkiguzue itzultzen. Gorrotoz eta izugarrikeriaz blai itzultzen zaizkigu, behiala izan zirenak ezin gehiago izanik, etab, etab.

Argudio horiek batzuetan gutxiesten dira. Amen argudioak. Gainerako herritarrek erabili beharko genituzkeen argudioak. Esan genezake erraz asko: gure adiskideak, gure lagunak, gure auzoak, baina ez dugu hala egiteko ohiturarik.

Emakumeen erakunde horiek lortu zuten bortxaketak gerra krimenezat sala zituzten. Oso garrantzitsua dugu hori. NBEak hala onartzea. Orain, hori zoritxarrez oso zabaldua delarik ere, erabat horren kontra aritu beharra da.

Alabaina, badakigu indarkeriarik gabeko gure eskarmentua ez dela negoziaketa mahian baloratua. Behar genukeen indar politikoa falta zaigu oraindik. Haiek, batzuek nola besteek, gauzak “beren erara” negoziatzen jarraituko dute.

Gatazken biktima edota bizirik iraundurikoak gara eta gatazkak konpontzen parte hartu behar dugu, baina ez biktimak izateagatik, baizik eta herritar garen bezainbatean.

Horregatik egoera aztertu behar dugu geure artean eta ados jarri. **Emakumeon arteko itun eta aliantzak** lotu behar ditugu. Eta mahaietan geure arrazoinak eta beharrak azaldu.

Konpontzeaz ditugun arazo oro konpontzeko taktika eta estrategia politikoa sortzen jakin bahear dugu. Itunak eta aliantzak egin daitezke eta egin behar ere dira.

Indarraren arrazoia alde batera utzi eta elkarrizketaren eta bat etortzearen kultura garatu behar dugu.

Emakumeek mundu osoan eta hemen ere bizi duten indarkeria berezia salatu behar dugu. Gu guztiontzako helburu nagusia behar luke izan.

Boterean izateko itun eta aliantzak. Boterean parte hartu. Agenda politikoak, lehentasunak, aurrekontu banaketak erabakitzen diren lekuetan izan. Gizarte politika gehiago behar dugu, elkartasunezkoak, gaur egun dugun desberdinkeriarekin amaituko badugu.

Gaur egun dabilen alderdikeria apurtu behar dugu, hau da, Stasa Zajovic “Beltzez jantziriko emakumeak” taldeko kideak “nazio adostasunak apurtu” deitzen duena.

Emakume gisa ditugun interesei begiratu, geure bizitzei, geure eskubideei, batzen gaituenari. Feministen eta “emakume politikoak” deiturikoen arteko elkarlana behar da. Zaintzaren gaia konpontzen aritu behar dugu, indarkeria matxista ezabatzen, soldaten desberdinkeria berdintzen, txirotasunarekin amaitzen, beirazko sabaia urratzen.

“Ahotsak” dela eta, hona zeintzuk diren, gure ustez, gaur egun ditugun arazo nagusiak:

A) Lotura gutxiago ukan dezala. Gaur egun, oraindik sustatzaile izan diren emakumeen alderdietara, alderdien estrategietara lotuegia baita. Horrek ez dio mugitzen uzten.

B) Berezko dinamika berea ukan dezala. Emakume orori parte hartzeko aukera eman behar zaio; emakume orok parte har dezatan eta aurrera egin, Ahotsak elkarrizketaren alde, gatazka konpontzeko eta emakumeek prozesuan parte har dezaten irekitako bidean. Esparru politiko osoko emakumeenganaino behar du hedatu.

C) Prozesu horrek duen mehatxu eta etsai anitzi erantzun argi eta bateratua eman behar dio.

D) Eta behin eskatzen hasita, “emakume politiko” deiturikoen eta feministen arteko harremanak estutzeko ere balio dezala. Emakumeok batu behar dugu eta taktika eta estrategiak elkarren artean prestatu, denok bide beretik jo, zaintzen arazoa konpontze aldera, soldaten bereizkeria berdintzeko, txirotasuna eta indarkeria matxista ezabatzeko. Lana eta enplegua bana daitezela lortu behar dugu, beirazko sabaia apurtu, politikan parte hartu, dagokigun ordezkaritza lortu, etab, etab.

Eta ez dezagun ahanzi, Euskal Herriko indarkeria ez dela amaituko gatazka konpontzearekin; indarkeria, hemen eta mundu osoan, soilik patriarkatua desagertzean amaituko da.

Bake negoziazioak prozesuak dira eta, haien mende da elkarbizitza berriro eraikiko duen gizartearen egitura; horregatik da funtsezko feministok haietan parte har dezagun.

## Bibliografía

“Mujeres en Pie de Paz” Carmen Magallón.

Mujeres a favor de la Paz, hainbat egile. Icaria argitaletxea.

“Nosotras que perdimos la Paz”, Llum Quiñonero.

“La voz dormida”, Dulce Chacón.

**ASUN URBIETA – PLAZANDREOK**  
2008ko martxoaren 8an